

## **BALIO PROPOSAMENA**

*Gaur egun, gizarte kontsumista batean bizi gara, non, gure gustuek izugarritzko garrantzia dute, guk gustuko ditugun gauzak erosi eta erabiltzera ohituta gaude. Guk erosten ditugun gauza eta aparatu batzuek arazo konkretu batzuei erantzuten diete, beste batzuk aldiz ez daude arazo konkretuei aurre egiteko diseinatuta, soilik gure gustuak asetzeko sortutakoak dira.*

*Gure proiektuak ez dio inongo arazo konkreturi erantzuten, gure proiektuaren xede nagusia jendeak bere gustuak eskuragarri izatea da. Gure proiektuak pertsonalizatua izan behar du, inongo beharrei erantzun gabe, baina aldi berean aintzindaria izango den diseinu pertsonalizatuaren aukera bermatuko du. Hain zuzen ere gure enpresa automobilentzako hagun pertsonalizatuak egiten dituen enpresa bat da, "Xunxione" izena duena.*

*Gure enpresa honen bereizgarri nagusia handia da. Lehenik eta behin aintzindaria eta berritzailea izango den enpresa bat izango da, izan ere gaur egun jartzen diren hagun guztiak edo ia gehienak automobil marka bakoitzak sortutako hiruzpalau modeloak dira. Ez da oso ohikoa norbere automobilarentzako hagunak sortzea, beraz gure egitasmo honek berritasuna ekarriko dio hain errotuta dagoen automobil industriari. Berritzailea izateaz gain balio kualitatibo handia eskainiko du, diseinu pertsonalizatuarekin eta nahi den materialarekin egiteko aukera ematen baitu, horrela bezero bakoitzak nahi bezalako hagun mota lortuko du.*

*Gainontzeko lehiakideekin alderatuta, eskuragarritasun osoa bermatuko du gure proiektuak, online plataformen bidez bideratuko baiditugu gure negozio guztiak. Interesatuta dagoen bezeroak nahikoa izango du gure plataforman sartu eta bere datuekin erregistratzea berak nahi duen hagun mota diseinatzeko, bezeroak askatasun osoa izango du, guk emandako parametroen barruan berak nahi duen diseinua sortzeko. Horrez gain, prozesu guztia online bidez burutuko denez bezeroak ez du inora mugitu beharrik izango, nahikoa izango du soilik haguna fabrikatzean azken honen bila joatea, eta nahi izanez gero autoari momentuan ipintzeko aukera ere bermatuta edukiko du pagua egiten duen edonork, eskuragarritasun erraza bermatua izango du.*

*Beraz esan dezakegu, aintzindaria eta berritzailea izateaz gain, gure enpresak izaera propioa izango duela, kalitate berezia eskainiko duelako, pertsonalizazio absolutua eskainiko duelako, lana erabat erraztuko duelako, erabilerreza izango delako eta eskuragarria izango delako guztiz.*

*Gure enpresa hau ez da kuantitatibotasunarengatik bereizgarria izango, kalitatea dela medio, prezioak ez baitira oso merkeak izango.*



